

NARRASTI ERRALDOIAK

Beharbada, historiaurreko garaiei buruzko filmen bat ikusia duzu. Film horietan, maiz, antzinako gizonak, haitzuloetan bizitzen, basapiztiak ehizatzen eta elikatzeko zuhaitzetatik basafrituak biltzen agertzen dira.

Film hauek, hegaz egiten duten narrastiak et pizti beldurgarri hauen erasoetatik ihes egiten duten gizon ikaratiak erakusten dizkigute askotan.

Baina hori ez zen horrela gertatu: narrasti erraldoiak (lur gainekoak eta hegalaria) lurretik, orain dela hirurogeita hamabost milioi urte inguru desagertu ziren eta gizona, bertan, orain dela hiru milioi urte-arte ez zen agertu.

Gaur egun, haien hezur fosilduak aurkitu ditugula eta jakin badakigu antzinako garaietan dinosauroak egon zirela.

Lurraren iraganaldia aztertzen duten zientzialarien problema nagusienetako bat, pizti horiek zergatik desagertu ziren jakitea da.

Dinosauroak beren ingurunera ederki moldaturik zeuden. Haietako batzuk belarjaleak ziren, beste batzuk haragijaleak eta beste zenbait orojale. Temperatura, hezetasuna eta lurraren gaineko klima faktoreak guztiz egokiak ziren beren garapenerako. Beste izakien artean nagusiak zirenez, janaria segurtaturik zeukaten. Animalia erresumaren erregeak zirela esan daiteke. Orduan zergatik desagertu ziren?

Zientzialari batzuk, Eguzki sistematik hurbil zegoen izar edo kometa baten leherketak sortarazi zituen erradiazioek, narrasti erraldoi hauek akabatu zituztela uste dute. Animalia hauek janari multzo handia beharko zuten gero, beste zientzialari batzuk janaria amaitu egin zela uste dute. Beste batzuk, izurrite edo eritasun batek bat-batean izaki hauek desagerrarazi zituela pentsatzen dute.

Hala ere, inor ez daki segurki dinosauroekin zer gertatu zen. Agian, egun batetan, zientzialari batek misterio hori argituko digu.

Baina, argi dakiguna hauxe da: gizakiak ez zirela izan, beren gezi eta lantzekin, dinosauroak akabatu zituztenak.

NARRASTI ERRALDOIAK

Beharbada, historiaurreko garaiei buruzko filmen bat ikusia duzu. Film horietan, maiz, antzinako gizonak, haitzuloetan bizitzen, basapiztiak ehizatzen eta elikatzeko zuhaitzetatik basafrituak biltzen agertzen dira.

Film hauek, hegaz egiten duten narrastiak et pizti beldurgarri hauen erasoetatik ihes egiten duten gizon ikaratiak erakusten dizkigute askotan.

Baina hori ez zen horrela gertatu: narrasti erraldoiak (lur gainekoak eta hegalaria) lurretik, orain dela hirurogeita hamabost milioi urte inguru desagertu ziren eta gizona, bertan, orain dela hiru milioi urte-arte ez zen agertu.

Gaur egun, haien hezur fosilduak aurkitu ditugula eta jakin badakigu antzinako garaietan dinosauroak egon zirela.

Lurraren iraganaldia aztertzen duten zientzialarien problema nagusienetako bat, pizti horiek zergatik desagertu ziren jakitea da.

Dinosauroak beren ingurunera ederki moldaturik zeuden. Haietako batzuk belarjaleak ziren, beste batzuk haragijaleak eta beste zenbait orojale. Tenperatura, hezetasuna eta lurraren gaineko klima faktoreak guztiz egokiak ziren beren garapenerako. Beste izakien artean nagusiak zirenez, janaria segurtaturik zeukaten. Animalia erresumaren erregeak zirela esan daiteke. Orduan zergatik desagertu ziren?

Zientzialari batzuk, Eguzki sistematik hurbil zegoen izar edo kometa baten leherketak sortarazi zituen erradiazioek, narrasti erraldoi hauek akabatu zituztela uste dute. Animalia hauek janari multzo handia beharko zuten gero, beste zientzialari batzuk janaria amaitu egin zela uste dute. Beste batzuk, izurrite edo eritasun batek bat-batean izaki hauek desagerrarazi zituela pentsatzen dute.

Hala ere, inor ez daki segurki dinosauroekin zer gertatu zen. Agian, egun batetan, zientzialari batek misterio hori argituko digu.

Baina, argi dakiguna hauxe da: gizakiak ez zirela izan, beren gezi eta lantzekin, dinosauroak akabatu zituztenak.

NARRASTI ERRALDOIAK

Beharbada, historiaurreko garaiei buruzko filmen bat ikusia duzu. Film horietan, maiz, antzinako gizonak, haitzuloetan bizitzen, basapiztiak ehizatzen eta elikatzeko zuhaitzetatik basafrituak biltzen agertzen dira.

Film hauek, hegaz egiten duten narrastiak et pizti beldurgarri hauen erasoetatik ihes egiten duten gizon ikaratiak erakusten dizkigute askotan.

Baina hori ez zen horrela gertatu: (lur gainekoak eta hegalaria) lurretik, eta gizona, bertan, orain dela hiru milioi urte-arte ez zen agertu.

Gaur egun, aurkitu ditugula eta jakin antzinako garaietan.

Lurraren iraganaldia aztertzen duten zientzialarien problema nagusienetako bat, pizti horiek jakitea da.

Dinosauroak beren ingurunera Tenperatura, hezetasuna eta lurraren gaineko beren garapenerako. Beste izakien artean nagusiak zirenez, segurtaturik. Animalia erresumaren erregeak zirela esan daiteke.

Zientzialari batzuk, Eguzki sistematik, narrasti erraldoi hauek akabatu zituztela uste dute. Animalia hauek janari multzo handia beharko zuten gero, beste zientzialari batzuk uste dute. Beste batzuk, bat-batean izaki hauek pentsatzen dute.

Hala ere, inor ez daki segurki dinosauroekin zer gertatu zen. Agian, egun batetan, zientzialari batek misterio hori argituko digu.

Baina, haxe da: , beren gezi eta lantzekin,

NARRASTI ERRALDOIAK

narrasti erraldoiak, orain dela hirurogeita hamabost milioi urte inguru desagertu ziren, haien hezur fosilduak badakigu dinosauroak egon zirela.

zergatik desagertu ziren

ederki moldaturik zeuden. Haietako batzuk belarjaleak ziren, beste batzuk haragijaleak eta beste zenbait orojale. klima faktoreak guztiz egokiak ziren, janaria zeukaten. Orduan zergatik desagertu ziren?

hurbil zegoen izar edo kometa baten leherketak sortarazi zituen erradiazioek, janaria amaitu egin zela, izurrite edo eritasun batek desagerrarazi zituela.

argi dakiguna gizakiak ez zirela izan, dinosauroak akabatu zituztenak.